**Gordexolako Udala**
Ayuntamiento de Gordexola

## IHESLARI ETA ETORKINEN ESKUBIDEEN ALDEKO EUROPAKO MARTXAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Munduan 60 milioi pertsona baino gehiagok ihes egin behar izan dute beren bizilekuetatik bizia, osotasuna eta duintasuna babesteko. Bortxa eta miseriatik aske bizi ahal izateko.

Europar Batasunak milioi bat petsona baino gehiago hartu ditu 2015ean: gerra eta gatazketatik iheska zetozen; andreak izateagatik eta bortxatik aske bizi ahal izateko eskubideen alde egin nahi zuten; interes ekonomikoen aurrean lurra babestu nahi zuten; beren sexualitate eta nortasun guztiak askatasunez bizi nahi zituzten. Siria, Ukraina, Mali, Afganistan, Palestina, Kongo, Irak, Kolonbia... bezalako herrietatik datoz. Heriotzatik, bortxatik eta bonbetatik urrun dagoen toki seguru batean babesa eskatzeko eskubidea duten pertsonak dira. Estatuen beharra da babes ematea haiei.

Egun hauetan hotzikara sortu beharko ligukeen datu baten berri izan dugu: adin txikiko 10.000 ume desagertu dira, inork ere ez daki egun non diren.Europako mugetara iristen diren pertsonen herenak umeak dira. Onar ezinezko egoera da hau, haur horiek azkenean pertsonen trafikoen sareetan amaitu baitezakete bidea. Europara gatazketatik ihes heldu diren andreen egoera ere guztiz kezkagarria da. Sexu bortxan erortzeko dituzten aukerak izugarri handiak gertatzen baitira. ONUren arabera, Espainia da sexu bortxa bultzatzen duten, edo sexu zirkulazioa eragiten duten sareen helburu nagusietako bat.

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE LA MARCHA EUROPEA POR LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS MIGRANTES Y REFUGIADAS

Más de 60 millones de personas en el mundo han tenido que huir de sus regiones de origen para salvaguardar su vida, su integridad, su dignidad. Para vivir libres de violencia y libres de miseria.

La Unión Europea ha recibido en 2015 más de un millón de seres humanos que huyen de guerras y conflictos, de persecuciones por ser mujeres y defender su derecho a vivir libres de violencias, defender su tierra frente a los intereses económicos, por vivir libremente su sexualidad y todas sus identidades. Proceden de países como Siria, Ucrania, Malí, Afganistán, Palestina, R.D. Congo, Irak, Colombia... Son personas que tienen el derecho a solicitar asilo en un lugar seguro, lejos de las bombas, de la violencia, de la muerte. Es obligación de los Estados protegerlas.

En estos días se ha hecho público un dato escalofriante que debería hacernos temblar como humanidad: 10.000 menores han desaparecido, nadie sabe dónde están. Un tercio de las personas que llegan a las fronteras europeas son menores. Una situación absolutamente inaceptable que puede situar a niñas y niños en manos de redes de tráfico o de trata de personas. La situación de las mujeres que llegan a Europa huyendo de los conflictos también es extremadamente preocupante. El riesgo de que sufran violencia sexual y de género es altísimo. El Estado español es, según la ONU, uno de los principales países de

destino y de tránsito de redes de trata con fines de explotación sexual.

Babesa eskatzen dutenek ahalegin ikaragarria egiten dute Europaraino iritsi ahal izateko. Gosea, egarria, tortura, tratu txarrak eta sexu bortxak jasaten dituzte bidaian. Horren aurrean mugak indartu eta militarizatu egin ditu Europak, inor ere pasa ez dadin, erraz etortzeko bideak kenduz eta iheslariak gero eta zailago eta luzeago egiten zaizkien lur eta itsasoko ibilbideetan beren burua arriskuan jartzera kondenatuz. Iaz 3.700 lagunetik gora hil ziren Mediterraneoan, eta 2016ko urtarrilean beste 250 gehiago, 8 lagun eguneko. Gerrak eta liskarrak bultzatzen dituzten herrialdeek, leporaino nahasiak direnak jazarpen eta bortxazko lekualdatzeetan, ateak ixten dizkiete haiek sortutako indarkeriatik iheska datozenei, babes kontuetan dituzten betebeharrak sistematikoki bete gabe utziz. Pertsonen trafiko sareetan uzten dituzte, eta haiek segurtasun gabeko txalupetan sartzen dituzte gero, gezurretako igeri-jakaz jantzirik, eta nabigazio kontuetan eskarmenturik ez duen jendearen eskuetan. Iheslariek bigarren mailan uzten dute hori, beren segurtasunarekin kezkatuak baitaude eta beren familiak heriotza arriskutik atera nahi baitituzte.

Las personas que solicitan asilo hacen un esfuerzo enorme para conseguir llegar a Europa. Durante el viaje sufren hambre, sed, tortura, malos tratos o violaciones. Ante ello, Europa fortifica y militariza sus fronteras para impedir su paso, eliminando vías seguras de acceso y condenando a las personas refugiadas a jugarse la vida en rutas marítimas y terrestres cada vez más largas y más peligrosas. El año pasado más de 3.700 personas murieron en el Mediterráneo, en enero de 2016 más de 250, 8 por día. Países que fomentan las guerras y los conflictos, involucrados en las causas de las persecuciones y en el desplazamiento forzado, cierran sus puertas a quienes huyen de la violencia que generan, incumpliendo sistemáticamente sus obligaciones internacionales en materia de protección. Deja a las personas en manos de redes de tráfico y de trata de personas, que las embarcan en precarios botes, con chalecos salvavidas falsos y sin nadie experimentado en navegación. Pasan por todo eso porque quieren seguridad y anhelan alejar a sus familias de la muerte.

Kokatze prozesu horretan Europak 160.000 iheslari onartzeko konpromisoa hartu zuen, baina azkenean 583 bakarrik hartu ditu. Espainiak 17.000 lagun hartuko zituela aldarrikatu zuen, baina 18 bakarrik etorri dira. Pertsonen enkante lotsagarri horren ondoren, ez da gai izan lekuz aldatzen ahaleginetan diren 60 milioi horietatik segurtasunik emateko ezta kopuru txiki horri ere. Eta horri Europako zenbait herrialdek onartu dituzten neurriak gaineratu behar zaizkio. Eskudiruan 1.340€ baino gehiago

De las 160.000 personas refugiadas que Europa se ha comprometido a acoger en el proceso de reubicación, solo se ha acogido a 583 personas. De las 17.000 que el Estado español se comprometió a acoger, solo han llegado 18. Tras una vergonzosa subasta de personas, ni siquiera se protege a ese minúsculo porcentaje de los 60 millones de personas desplazadas de manera forzada. A ello se añaden las medidas que están adoptando algunos países europeos. Dinamarca ha comenzado a confiscar el

duten errefuxiatuei dirua kentzen hasi da Danimarka, eta trabak jartzen ditu familiako kideak elkartzeko orduan. Suediak, Holandak eta Finlandiak deserriratze masiboak iragarri dituzte. Espainiak Ceuta eta Melillako muga kontrolak indartu ditu (hesiak, Polizia Nazionala, Guardia Zibila), eta sarrera eragozten die modu seguru eta legezkoan sartzeko eta babesa izateko eskubidea dutenei. Abiapuntuan bonbardatzen dira herriak, eta gerratik eta migrazio kontroletik irabazi handiak ateratzen dituzten segurtasun- eta arma-enpresak babesten dira.

Honen guztiaren ondorio latzak begien bistakoak dira dagoeneko. Diskurtso eta proposamen politiko xenofoboak indartzen ari dira, eta horrekin batera harrera guneei erasoak egiten zaizkie eta atzerritarrak kriminalizatzen dira. Bigarren Mundu Gerraz geroztik gertatzen ari den lekualdatze bortxatu hau da sortu den krisirik handiena, eta horren aurrean Europaren jarrerak ez du erakusten ez jendetasunik, ez erantzukizunik ez elkartasunik. Iheslariei babesa ematea ez da karitate kontua, baizik Giza Eskubideen Nazioarteko Itunek biltzen duten oinarrizko eginkizuna.

Eskerrak, hiritar gehienak, etika dela eta, beren gobernuek erakusten duten mailatik gorago daude. Gure erbesteratze garaien historia gogoan dugu eta handik ere ikasi dugu. Gerrek eta indarkeria amaitzea nahi dugu! Jendea zauritu eta hil egiten duten muga horiek desegin nahi ditugu! Pertsonak jendetasunaz onartuko dituzten herri eta hiriak nahi ditugu! GKEak, giza elkarteak, boluntarioak iriste-guneetan eta beste hiri askotan antolatzen ari dira, biziak salbatzeko, gure herrietara datozenei

dinero en efectivo de las personas refugiadas que supere los 1.340€ y a poner trabas a la reagrupación familiar. Países como Suecia, Holanda y Finlandia han anunciado deportaciones masivas. El Estado español refuerza el control fronterizo en Ceuta y Melilla (vallas, Policía Nacional, Guardia Civil) impidiendo la entrada de quienes tienen pleno derecho a la circulación por vías legales y seguras, y a una adecuada acogida. Se bombardea a la población civil en origen y se defiende a las empresas armamentísticas y de seguridad, quienes se lucran con los importantes beneficios de la guerra y del control migratorio.

Las graves consecuencias de este tipo de decisiones ya se están dejando ver. Los discursos y propuestas políticas xenófobas ganan terreno y con ellos los ataques a centros de acogida y la criminalización a las personas extranjeras. La actitud de Europa ante la mayor crisis de desplazamientos forzados tras la Segunda Guerra Mundial, carece de humanidad, responsabilidad y solidaridad. La protección de las personas refugiadas no constituye un acto de caridad sino una obligación recogida en los Tratados Internacionales de Derechos Humanos.

Afortunadamente gran parte de la ciudadanía está éticamente muy por encima de sus gobiernos. Recordamos nuestra historia de exilio y aprendemos de ella: ¡Queremos el fin de las guerras y de la violencia! ¡Queremos eliminar las fronteras que hieren y matan! ¡Queremos pueblos y ciudades que acojan con dignidad a todas las personas! ONG, grupos sociales, voluntarios y voluntarias, se están organizando tanto en los puntos de llegada como en múltiples ciudades para salvar vidas, atender a quienes llegan a nuestros países y contrarrestar los

laguntza eskaintzeko eta babesa behar dutenak kriminalizatzen dituzten mezuak eta diskurtsoak deuseztatzeko.

Orain berehala elkartasunez eta erantzukizunez ezer ere ez egiteak irtenbiderik gabeko tokira eramaten gaitu, gizadiaren suntsitzera. Giza eskubideei bortxa izugarria egiten zaie pertsonen gainetik interes ekonomiko eta politikoei lotsa barik lehentasuna ematen zaienean. Kalea hartzeko garaia da:

GERRARI EZETZA! ETORKIN ETA IHESLARIEI BAIETZA!

**PREMIAZKOA DA, HORREGATIK, ESKATZEN DIEGU GURE GOBERNU ETA ERAKUNDEEI:**

**Europar Batasunari:**
- Gerrak, liskarrak eta bortxa ez sustatzea.

- Liskar bortitz eta esetsaldietatik iheska dabiltzan pertsonei bide seguruak eta legezkoak irekitzea.
- Mediterraneoan eta Egeon heriotza gehiagorik gerta ez dadin, baliabide aski izango dituen itsas salbamendu lan eraginkorra abian jartzea, sorospen-eginbeharra betez.
- Desagertutako haurrak berriz ere aurkitzeko ahalegin guztiak, erakundeenak eta gizarte zibilarenak, koordinatzea.
- Konpainiarik gabeko umeek familiarekin batzeko duten eskubidea modu eraginkorrean babestea.
- Pertsonen trafikoen sareen kontrako neurri indartsuak abian jartzea.
- Pertsonen sexu bortxa bultzatzen duten sareen aurka hartan jakitun diren erakundeekin era koordinatuan borroka egitea.

mensajes y discursos que criminalizan a quienes deben ser protegidas.

No actuar con urgencia, solidaridad y responsabilidad nos lleva a un callejón sin salida, al colapso como humanidad. La obscena preeminencia de los intereses económicos y políticos sobre las personas supone una gravísima violación de los derechos humanos. Es el momento de volver a tomar las calles y decir:

¡NO A LA GUERRA! ¡SÍ A LAS PERSONAS MIGRANTES Y REFUGIADAS!

**POR TODO ELLO ES URGENTE, Y ASÍ LO RECLAMAMOS A NUESTROS GOBIERNOS E INSTITUCIONES:**

**Unión Europea:**
- No fomentar las guerras, los conflictos y la violencia.
- Abrir y garantizar vías legales y seguras para las personas que huyen de graves conflictos y de persecuciones.
-Poner en marcha una operación de rescate y salvamento marítimo eficaz que cuente con los medios y el alcance necesarios, cumpliendo con el deber de socorro, con el fin de evitar más muertes en el Mediterráneo y en el Egeo.
- Coordinar todos los esfuerzos, de instituciones y de la sociedad civil, para localizar a los y las menores desaparecidos.
- Proteger de forma efectiva el derecho a la reagrupación familiar y los derechos de las y los menores no acompañados.
- Poner en práctica medidas firmes contra las redes de tráfico y de trata de personas.
- Luchar, de manera coordinada con las organizaciones expertas en la materia, contra las redes de trata con fines de

explotación sexual

**Espainiako estatuari:**
- Jatorrizko nahiz igarotze herrialdeetako kontsuletxe eta enbaxadetan babes politikoa eskatzeko aukera ematea.
- Babes eskubidearen unibertsaltasuna onartzea eta nahi duten guztiei horretarako bide ematea, alde batera utzirik haien herrialde eta jatorria.
- Kokatze eta finkatze programak abiarazi eta indartzea.
- Errefuxiatuei laguntza ematen dieten erakunde eta pertsonen babesa bermatzea.
- Konprometitutako onartze prozeduren tramitazioa arintzea.
- Hego aldeko mugan dauden iheslarien egile eskubideak errespetatzea.
- Larritasun handira eraman gaitzaketen kontakizun eta diskurtso xenofoboei aurre egitea.

**Estado español:**
- Garantizar la posibilidad de pedir asilo en embajadas y consulados en los países de origen y tránsito.
- Reconocer la universalidad del derecho de asilo y garantizar el acceso al procedimiento de todas las personas que lo soliciten, con independencia de su país o región de origen.
- Activar y reforzar los programas de reasentamiento y reubicación.
- Garantizar la protección de las organizaciones y personas que apoyan a las personas refugiadas.
- Agilizar los trámites de acogida con los que se ha comprometido.
- Respetar los derechos humanos de las personas refugiadas e inmigrantes en la frontera sur.
- Contrarrestar las narrativas y discursos xenófobos que pueden llevarnos a situaciones de extrema gravedad.

**Euskadiri:**
- Espainiako gobernuari presioa egitea lehenbailehen abian jar ditzan Europan onartutako konpromisoak.
- Euskadira iristen diren iheslari guztiek zerbitzu eta baliabide publikoak izatea, haien jatorria eta hemen sartzeko erabili duten bidea alde batera utzirik.
- Bizikidetza sustatzea eta osotasunezko harrera bultzatzea, egiazko babes hiriak indartuz.

**Euskadi:**
- Presionar al Gobierno Español para que active de manera urgente los compromisos asumidos en Europa.
- Garantizar que todas las personas refugiadas que llegan a Euskadi puedan acceder a los servicios y recursos públicos con independencia de su origen y de la vía de entrada que hayan utilizado.
- Promover la convivencia y fomentar una acogida integral favoreciendo verdaderas ciudades refugio.

Azkenik, erakunde guztiek (espainiar gobernuak, eusko jaurlaritzak, toki erakundeek eta udalek) errespetua erakutsi behar diete gizaki orok dituen eskubideei, modu argian eta inolako diskriminaziorik gabe.

Finalmente, todas las instituciones (gobierno español, gobierno vasco, instituciones locales y ayuntamientos) han de mostrar respeto a los derechos humanos de toda persona, sin reserva y sin discriminación.

Gordexolak xede horretarako babes etxea eskaintzen du lau urterako, baldin eta Eudelek edo errefuxiatuen harrera koordinatzeko ardura duten erakundeek Udalari jakinarazten badiote eskura jartzen den baliabide hori erabiltzeko beharrizana.

2016ko apirilaren 28ko ohiko osoko bilkuran bertaratutakoek aho batez onartua.

Gordexola ofrece un piso en acogida a tal efecto durante cuatro años, siempre y cuando a través de Eudel o de las Entidades encargadas de coordinar la acogida de las personas refugiadas se traslade a este Ayuntamiento la necesidad de este recurso que se pone a su disposición".

Aprobado por unanimidad de las/los asistentes en la Sesión Ordinaria del Pleno del 28 de abril de 2016.

**Gordexolako Udala**
Ayuntamiento de Gordexola